

NAZIO-ARTEKO UNEA

Pakea Kurdistan'en?

Cairo'n egon dira bilduta arabe errietako buru diran guztiak: azalez Israel'i dagokionez erabili bear duten politika erabakitzeke. Badi-rudi, batez ere, arabeak, euren artean dauzkaten eztabaidak konpontzeko izan dana. Ala ere bilera orren ondorenen artean bada bat, bear bada segituan ikusiko ez deguna, ta asko entzun ez deguna, bañan ondoren ori betetzen baldin bada aspaldidanik datorren prolema bat konpondu ta erabakiko da. Kurdoen prolema. Lenago ere orri auzen bitartez erri onetzaz itzegin izan degu. Kurdoak ere erlijioz mahomatarrak dira bañan izkuntzez, oiturez eta beste gauz askoegatik arabeak ez dira. Kurdoak Turki, Persi, Siri ta Irak'eko estaduetan arkitzen dira. Irak'en dauden kurdoak dira gogorrena jokatu dutenak bere eskubideen alde, bere nortasuna gorde natean, eta ori Irak'eko agintariengandik lortu etzutelako armetan askotan ibililik bai Kassem'en kontra, bai oraingo agintarien kontra. Orañi ere guda gogorrean dabiltz eten gabe Irak'eko arabeen kontra. Ejipto'ko lendakari dan Nasser'ek ez du beñiere kurdoen alde edo Irak'eko arabeen alde postura garbi artu. Oraingo ontan, Cairo'ko billean ikusten denez, Irak'eko lendakari dan Areff kurdoekin konponketak egitera bultza du. Izan ere kurdoekin burrukan dabiltzan bitartean, Irak'eko gudariak ez du-

te balioko Israel'en kontra joateko. Egingo ote dute benetan pakea ta kurdoak euren eskubide sustrait-suenak lortuko ote dituzte?

Arritzeko da bañan mundua estutzen dijoan bitartean, gerotik gerora nazioen gañetikako antolaketak indarra artzen dijoazten bitartean, oraindik ere eta gero ta gero geiago erri txikien goraberak gogor arkitzen ditugu nunnai; badi-rudi pakearen bila joan arren badagola munduaren barruan zerbait osatu gabea, kaso askorik egiten etzaiona? Zergatik izan da erreboluzioa Zanzibar'en? Beste arrazoi askoen tartean, ango arabeak gutxienak izan arren estadu guztia euren eskuetan zekutelako. Ruanda'n ere egun auzetan beñi eta berriro ango bi errien artean burruka gogorak sortu dira. India'n ere makina bat iskanbilla sortu da hinduen artean eta mahomatarren artean. Zer da Chypre'n gertatzen dana?

Pakea itzetik ortzera ibiltzen degunean, askotan pakea uste degu dala, gauzak dauden bezela uztea, ez mugitzea, geldi egotea; eta pakea onela ikusi nai dute, mundu guztian, oraingo gauzak aldatzea komeni etzaietenak. Ez ez gaitzean engañatu; pakea bearrezkoa degu bañan Aita Santu Paulo VI'gnak Belen'en egindako itzalidien ikusten duan bezela, dinamismo baten barruan.

Arregi'tar Rikardo'k

MUNDUAN ESATEN DANA

LE MONDE (Paris'koa):

Belgika'k Konstituzioa berria?

«Astearteko (15-1) eguna ez da nolanaikoa izango Belgika'ren instituzioetako. Lenengo aldiz iru partidu aundienak—gubernua osatzen duten sozialkristau partidua eta sozialista partidua, eta oposizioan dagon askatasunerako ta aurrerapenerako partidu liberala— batera eseri dira mai baten aurrean, Konstituzioaren be-

rritzea nola egin bear duten erabakitzeke».

NEWSDAY (New York'ekoa):

Ipar-amerika'ren jokaera txarra.

«Panama'n sortu diran istilluak latino-amerikako errealtateak ezagutu nai ez diralako jaio dira; eta izan ere ez dira bear bezela ekonomi ta gizarte prolema erabaki nai».

BERRIKETAN

Napoleon III'gnak bazuan ministro bat Villemain izenekoa. Minkistro au Frantzi'ko Akademiakoa zan. Egun batean, solasean, Akademi onen gauz onak esaten ari zitzaion Napoleon III'gnari.

—Villemain jauna—esan zion Napoleon III'gnak—, berorren Akademiak ez dit batere pozik ematen; ez da Jakintzeko Akademia bezelakoa, iru senatore ematen dituten oietakoa.

—Jauna—erantzun zuan Villemain'ek— Frantzi'ko Akademiak askotaz

ere geiago eman dio. Iru esilatu ta oien artean Victor Hugo gañera.

Erroma'n Caninius Resitius'en konsuladua, agintaritzak, egun bat bakarra irauun zuan; ori zala ta Ciceron'ek idatzit zuan:

«Badegu gure istorian agintari bat zearo zintzo ta langille izandakoa. Bere agintaritzan bitartean une batean ere etzuan lorik egin».

NEHRU'REN JARRAIPENA

India'k askatasuna lortu zuan ezkerotik Nehru izan da estadu onen gidari ta gobernuaren buru. Orañi gaxo arkitzen da. Eta bildur dira India'ko agintariak ez ote duan berriro agintaritzan arzerik izango. Ori dala ta lenengo aldiz India'ko politikoentzat Nehru'ren jarraipena ren prolema planteatu da. Nor izango ote da? Ortze dago koska. India'n partidu bat da indartsuen eta benetan agintzen duana, Nehru'ren partidua. Ala ere demokrazi oso-oso bat da Ingalterra'koaren tankera artu diana batez ere.

Nehru India'rentzat gizon eta politikoa aundia izan da. Eta ez India'rentzat bakarrik, mundu guztia-rentzat ere bai. Bere pak-zaletasuna oso famatua izan da ta «irugarren munduan» itzal aundikoa. Beraz, nortasun aundiko gizona.

Nortasun aundiko gizonak eta luzaroen agintari egoten diranak, beti prolema go-

gor bat jartzen dute. Eta prolema ori diktaduretan bakarrik ez da sortzen, edozein demokrazitan ere bai. Eta, maiz esan oi da, orrelako gizonak jarraipen onik ez dute uzten. Nik ere orixe bera siñisten nuau bañan Adenauer'ek Alemani'ko agintaritzan utzi zuanetik siñismen ori gero ta gero indar gutxiagokoa det. Zer dala ta? Bere urrengoa, Eihad jauna, politiko sendoa bezela agertu zaigulako. Eta ori aitortzeak ez du esan nai Erad'en politika jatorra iruditzen zaitenik.

Utziko ote, edo, izango ote Nehru'k India'n bere agintaritzan jator eta sendo jarraituko duanik? Ez ditut India'ko politikoak geiegi ezagutzen eta orregatik nere erantzuna ez da balio aundikoa izango. Ala ere India'k beti gizon on da sendoak sortu ditu ta gizonak diran lekuan agintari trebeak ere izango dora. Ez da alperrik esaten ez dala demokraziarik demokratik gabe.

ZIZKI MIZKIAK

Moffen ugartea, aldi batean morsaz bete zagoen. Euskeraz nola esango ote-degu morsa? Itxas-otxoak? Nai dezun bezela. Ur eta legorreko abere auek, erdi arrai ta erdi lur-abere, oso ugari ziran len Ipar aldeko lur eta isletan. Orain, Moffen'go islan ez da alerik ikusten.

Zer gerta da? Gizonak jakin zuten zeifen ugari ziran itxas-otxo oiek ugarte aretan, eta esan zuten:

—Goazen morsak zibilizatzerara. Artu zituzten armak eta asi ziran: «pin, pan pun!» Eta andik urte batzuetara etzuten bizirik laga. Denak zibilizatuta gelditu ziran ezur zuriz ugartea beteaz. Betortzak kentzen zikioten saltzeko ta beste guztia an uzten zuten, ezurretan gelditu arte.

Ori morsakin egitea, ez da ederra; baiña gaitz-erdi. Baiña berdin egin izan degu askotan europarrok makifia bat gizonekin. Orrelaxe zibilizatuta izkutatu izan dira erri asko Ameriketean eta beste lurralde askotan.

Diputadu laborista bat ari zan Londres'ko diputaduen Batzar-lekuan Gobernupeko lana jorratzen:

—«Alperrik da Ejerzitua zailtzea, larkin (bonba) aundiak sortzea, italiar neska ta Prantzi'ko ikasleei nolabaiteko galderak egitea, gure mugak lapur eta gaizkille guziel irikiak dauden bitartean».

Diputadu konserbadore batek erantzun zion:

—«Gure muga-polizia inñun ez bezelakoa da ta eredki daki mugaldean sartzen diranak zaitzen».

Sidney Silverman'ek, (au zan diputadu laborista), bereala ziria obeto

sartzeko zai egon da gero, asi zan esaten:

—«Ez nabil besterenak kontatzen; neroni, oporretatik itzulean Ingalaterra'n sartzerakoan, gezurrezko pasaportearekin nentorren, eta bertan nere lizentza ADOLFO HITLER jarria neukan. Ala ta guztiz ere, mugako poliziak nere arpegira begiratzeko, barrurako bidea irri-parrerik gozoz-naz erakutsi zidans».

Motellak! Gurean ezezik, or baztarratan ere, gertatzen dira gertatze-koak!

Luis Bertrand, Prantzi'ko Akademiakoa zalarik, Aita Santuarekin luze zegoen izketan. Alboko beste gelan, irureun aleman zeuden zai, Aita Santua ikustekotan. Esana zuten, Aita Santua agertu bezin laster, denak belauniko jarri zitezela.

Alako batean, irikitzen da atea ta guziak belauniko jartzen dira. Zein agertuko, ta Luis Bertrand azaltzen zai aurrean. Prantza zala jakin zutenean, alemanen sua; lenbiziko munduko gerrate-sasoia bai-zan.


Europa'ko errietan bere bizi-lagunei begiratuta, Dinamarka da inprenta edo irarkola geien duana. 2.240 bizilaguneko, ba-da an inprenta bat. Suiza'k 2.280 bizilaguneko irarkola bat. Belgika'k, 4.000 bizilaguneko bat. Holanda'k, 5.300'ko bat.

Eta ez noa besterik aitzazera. Azkena gure etxea. Guk eztegu irarkolarik. Ba-dakizu, irakurle. Papel bat nun sortu dan jakin nai ba-dezu, ez gure etxera etorri.

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Euskal irratsekoak

BASERRIAREN ALDE



Banen baneko eziyak. Ongerrri ta bonoak.

Belar Zuloet.

Torrelevegako Perira joan etorriak.

Baserrri, lur tresnak ta sbar.

Erosi edo berritz: ko diru aurreratzea.